Anita Maravillas & Portal 71

ANDEREÑO

FITXA DIDAKTIKOA

JATORRIZKO IDEIA	Miren Larrea
ZUZENDARITZA	Iván Alonso
TITEREEN DISEINUA ETA ERAIKUNTZA	Valentina Raposo
ZUZENDARITZA ARTISTIKO ETA TEKNIKOA	Ion Chávez
INTERPRETEAK	Miren Larrea/Maren Basterretxea Valentina Raposo
JATORRIZKO MUSIKA ETA BERTSIOAK	Fran Lasuen
ARGI-DISEINUA	Ion Chávez
ESZENOGRAFIAREN DISEINUA	Calvito&Tupe
ESZENOGRAFIAREN ERAIKUNTZA	Iñaki Ziarrusta (ATX Teatroa) y Javi Tirado
JANTZIEN DISEINUA ETA JOSKINTZA	Betitxe Saitua
TITEREEN JANTZIAK	Paulette San Martin
ATREZZOA	Javi Tirado
ILUSTRATZAILEA	Malen Amenabar
POEMA	Miren Amuriza
SORMEN-PROZESUAREN ERREGISTROA	Miren Amuriza y Malen Amenabar
ARGAZKILARIA	Txelu Angoitia
DISEINU GRAFIKOA	Oihane Chourraut
EKOIZPEN EXEKUTIBOA	Iratxe Extremiana - Portal71
EKOIZPENAREN KOORDINAZIOA	Ainhoa Bernaola
LAGUNTZAILEA	Zornotza Aretoa
EGONALDIAK	Topic Tolosa/Harrobia Bilbao/Casa de los Títeres de Abizanda/ San Agustin Kultur Gunea Durango
BIRARAKO LAGUNTZAILEA	Inaem – Instituto Etxepare
DIRU-LAGUNTZAILEA	Gobierno Vasco

FITXA ARTISTIKOA



HARREMANETARAKO: anitamaravillasteatro@gmail.com

Konpainia

Anita Maravillas titere antzerkian aritzen da. Bartzelonan hasi zenetik prestakuntza eta ikerketa lan handia egin du, eta, lan horren lekuko, Euskal Herrian hainbat lan ekoitzi ditu ZORNOTZA ARETOArekin eta PORTAL 71 ekoiztetxearekin lankidetza estuan.

2005ean sortu zuten Miren Larreak (Euskal Herria) eta Valentina Raposok (Txile). Konpainiako kide dira, era berean, Iván Alonso, zuzendari lanetan, eta Ion Chávez, argiztapen lanetan. Biak ala biak, Anita Maravillas kolektiboko sortzaile eta partaide egonkor bihurtu dira.

Titereen hizkuntza eta manipulatzailearekiko harreman eszenikoa ikertzen ditu Anita Maravillasek. Harreman hori da, hain zuzen ere, konpainiak aztertu eta jorratu nahi duena. Horretarako, hainbat baliabide narratibo erabiltzen ditu, besteak beste meta-fikzioa, antzerkiaren barruan antzerkiari buruz hitz egiteko. Ikuskizun bakoitza erronka berri bat da, **manipulazioaren teknika desberdinak ikertzeko aukera ematen duena: txotxongiloak, giza tamainako titereak, itzalak, hagak...** Halaber, konpainiaren sorkuntza prozesuetan funtsezkoa da titereen eraikuntza tailerra, bertan jaiotzen baitira pertsonaiak, zehaztasunik txikiena ere zainduz.

Konpainia honek **sei ikuskizun** ditu: “Los Sueños de Leonor” helduei zuzendua, eta “Sarean Sun”, “Blue Bird”, “Pintto Pintto”, “Jon Braun” eta “Kotondarrak” familientzat. Azken hori finalista izan zen 2022ko MAX sarietan, “familientzako ikuskizun onenaren” kategorian. Horrez gain, titere ikuskizun onenaren saria irabazi zuen FETENen, 2021ean. Aurretik ere, “Jon Braun” ikuskizunarekin, lantalde hau 3 urtez aritu da estatu mailan. Antzezlan honek 2018an “familia ikuskizun onenaren” saria irabazi zuen Titiremurcia jaialdian.

Gainera, kalerako proposamen bat ere badakar konpainiak: “Sardina Bakalau”. Lan horiek guztiek kritika ona eta harrera ezin hobea jaso dute.

www.instagram.com/anitamaravillasteatro/

Andereño

SINOPSIA

Andereño ausarta, trebea eta atsegina da. Gai da haurren gaitasunak ikusteko, guzti-guztienak. **Andereñok eta umeek eskola eder bat eraiki dute basoan**, animalia guztientzako lekua duen eskola bat.

Andereñok gehien maite duen hitza askatasuna da, eta, horregatik, bere ikasleak askatasunez haztea nahi du. Zoritxarrez, gerra hasiko da, eta, ondorioz, gure protagonistek atzean utzi beharko dute gogo biziz amestutako eskola, maitasunetik eta elkarren zaintzatik eraikia.

Istorio hau libre eta zoriontsu izateko ahalegin zoro eta ederra da. Bertan, andereño ausart haien hitzak bildu dira, belarrira honako hau xuxurlatzen digutenak: libre izateko lehen baldintza saiatzea da.

© Txelu Angoitia

ZERGATIK ANDEREÑO?

“Andereño” antzezlanak Errepublika garaian beren ideien alde jo eta ke aritu ziren irakasleen irudia berreskuratu nahi du. Emakume horiek askatasunez eta ilusioz egin zuten lan, hezkuntzarako eskubideak gizarte hobe bat eraikitzen lagunduko zigulakoan. Beren bokazio sendoari esker, guztientzako moduko eskolen alde borrokatu zuten, metodologia berritzaileekin, giza elkartasunaren idealean oinarrituta.

Horregatik, herriko irakasle ausart bat izango da gure antzezlaneko protagonista. Andereño honek, irakasteaz gain, ikasleengan sinesten du. Eskolaren funtzionamendua iraultzen du, eta iragan grisa hautsi eta aldaketa geldiezin baten parte sentitzen da.

Hala ere, egoera horrek ez du askorik iraungo. Udako egun bero batean, **gerrak errotik zapuztuko du bere proiektu hezitzailea**. Horrez gain, ez ditugu ahaztu nahi istorio honetako beste protagonistak: errugabeak izan arren gerra triste batetik ihes egin behar izan zuten umeak. Babesleku eta aterpe bila abiatu ziren umez betetako itsasontzi horiek eraman gaituzte, hain zuzen ere, istorio hau eraikitzera.

Animalien fabulen estetiketan oinarrituta, animalia talde bat izango da gure protagonistak gorpuzteaz arduratuko dena. Betiko ipuinen egitura eta moldeetan sartuta, **umorez, emozioz eta maitasunez beteriko istorio honetan** barrena elkarrekin bidaiatuko du etxeko txiki eta nagusiok.

Antzezlan honek ankerkeriaren aurrean askatasunak eta hezkuntzak duten balioa gogorarazten digu.

© Txelu Angoitia

IKUSLEAK

Ikuskizun hau haurrei (6 urtetik aurrera) eta, oro har, familiei zuzenduta dago.

LA REPÚBLICA DE LOS MAESTROS
Victoria Martínez, 2004

youtu.be/JVjommbxQSU

LOS NIÑOS DE RUSIA
Jose Camino, 2001

youtu.be/oLlde6xDTbI



Josefina Aldecoa. HISTORIA DE UNA MAESTRA. Debolsillo, 2016

Pilar Pérez Solano. LAS MAESTRAS DE LA REPÚBLICA, 2013

Edukiak eta balioak

- Errepublikako eta Gerra Zibileko andereñoak (1936-1939)
- Hezkuntzarako eskubide unibertsala (denontzat)
- Irakaskuntzaren balioa
- Aniztasuna
- Ankerkeria
- Errefuxiatuak
- Askatasuna

Ikuskizuna baino lehen

HELBURUA: “Antzerkia” zer den lantzea, oro har; bai maila fisikoan, bai maila artistikoan.

Antzezlan bat ikustera joatea esperientzia gogoangarria da: **ikusten duguna zuzen-zuzenean gertatzen ari da**, zineman edo telebistan ez bezala. **Aktoreak eta ikusleak espazio berean daude**, normalean antzoki batean. Istorioa gure begien aurrean gertatzen da, eta ez da errepikatuko; ezin da atzera egin. Horregatik da oso garrantzitsua **adi egotea, zehaztasunik galdu ez dezagun.**

Ikuskizun batean pertsona askok parte hartzen dute, saioaren egunean ikusten ez diren arren. Horren adibide dira: musika konposatu duen pertsona, eszenografia eraiki duen pertsona, antzezlana zuzendu duena edo ikuskizuna banatzen aritzen dena, leku askotan ikus dadin. **Antzerkia talde-lana da**, pertsona askoren energia behar baitu dena ondo irten dadin.

Nola gozatu ikuskizuna?

- Kontuan hartu, normalean, ikuskizuna hasten denean, antzokiko argiak itzali egiten direla.
- Adi begiratu gertatzen ari denari, isilik.
- Jakin antzezlan batean hunkitzea normala dela; barre edo negar egiteko gogoa izan dezakezu edo pertsonaiaren batekin identifikatu zaitezke.

Zer egin dezakezu?

- Antzezlana hasi baino lehen edo ondoren joan komunera.
- Emanaldia martxan den bitartean ez jan edo edan.
- Itzali telefono mugikorrak. Entzun ez arren, piztuta dauden pantailak deserosoak dira gainerako ikusleentzat eta aktoreentzat.
- Irten beharra baduzu, isilik eta inor gogaitu gabe irteten saiatu.



© Txelu Angoitia

Emanaldia ikusi ondoren

Ikuskizun honek **pentsamendua eta hausnarketa sustatzeko** proposamena luzatzen du. Horretarako, hainbat jarduera aurkezten dira. Testuinguruaren eta ikasleen interesen arabera, eta, noski, daukagun denbora kontuan hartuta, egokienak aukeratuko dira.

HELBURUA 1:

Memoria landu, narrazio-sekuentziak gogoratzeko.

Antzokitik irten bezain pronto, **gure buruari eta besteei galdetuko diegu ea ikusi dugun hori gustatu zaigun**. Erantzuna edozein izanda ere, **lehen iritzia aldatu egin daiteke**, hobera, ikaskideekin hitz egin eta hausnarketa sakonago bat egin ondoren.

© Txelu Angoitia

Jarduera-proposamena

- Azaldu zure hitzekin zeri buruzkoa den ikuskizuna.
- Adierazi zer gustatu zaizun eta zer ez.
- Zein izen dute protagonistek?

Nolakoa da pertsonaia bakoitza, labur esanda? Berdinak dira? Zerk bereizten ditu? Nolakoa da euren eskola? Zurearen antza du? Zer da gehien gustatzen zaizuna eskola horretatik? Nolakoa da andereñoa? Zer irakasten du? Bere ikaslea izan nahiko zenuke? Zergatik? Zer gertatzen da gerra iristean? Zure ustez, hezkuntza garrantzitsua da? Zergatik?

- Istorioak amaiera zoriontsua dauka?
- Zer pentsarazi dizu antzezlanak? Zer sentitu duzu?

HELBURUA 2:

Sormena piztu, eta adierazpen artistikoa eta inprobisazioa garatu.

Titere-ikuskizuna da hau, baina **zer esan nahi du horrek?** Titere-mota asko daude.

Batzuek **hariak** dituzte eta aginte edo kontrolarekin mugitzen dira, txotxongiloak kasu; beste batzuk eskuz mugitzen dira, **esku-titereak** bezala; eta beste batzuk **itzal** edo silueta bat baino ez dira. Batzuk oso txikiak izan daitezke, **atzamar-titereak** esaterako. Era guztietako materialez eraikita egon daitezke.

Andereño antzezlanean, mahaiko titereak erabiltzen dira, beti mugitzen dira azalera horren gainean eta buruak, eskuak eta oinak dituzte. Baina **itzal titereak erea** erabiltzen dira, linterna bidez sortutako silueten bidez.

TITERE BAT ERAIKITZEKO TAILERRA, ANITA MARAVILLAS

https://bit.ly/46Pa2u5

© Txelu Angoitia

Jarduera-proposamena

Eraiki zure eskola

Eszenografia oso garrantzitsua da ikuskizun osoan zehar; bereziki, zuhaitzez eraikitako eskolan, aire zabalean. Era askotako eskolak daude:

Sortu dezagun **GURE ESKOLA, ORIGAMI** teknika erabiliz:

Paperezko orri karratu bat behar dugu, koloretakoa edo zuria, gero margotzeko.

Hormak eraikitzeko:

❶ Tolestu papera erditik, goitik behera.

❷ Tolestu angeluzuzena erditik, berriro, karratua eratzeko, eta, gero, zabaldu. Une horretan, 2 tolesdura egongo dira paperean.

❸ Tolestu bi aldeak erdiko tolesdurara, karratuak eratzeko.

Sabaia eraikitzeko:

❹ Zabaldu goiko ezkerreko hegala eta sakatu triangelu bat eratzeko.

❺ Errepikatu prozesu berbera goiko eskuineko hegalarekin.

Jarri eskola zutik:

❻ ❼ Nahi bezala apaindu dezakezu. Erabili zure irudimena.



Karratu hau moztu eta zure origami eskola sortzeko erabili dezakezu.

HELBURUA 3

Hezkuntzaren eta askatasunaren balioa

Hezkuntza oinarrizko giza eskubide bat da. Pertsonei pobreziatik ateratzeko, desberdintasunak gainditzeko eta garapen jasangarria bermatzeko aukera ematen du. Hala ere, mundu osoan **244 milioi haur eta gaztek eskolaratu gabe jarraitzen dute**, arrazoi sozial, ekonomiko edo kulturalen ondorioz.

Hezkuntza da pobreziatik ateratzeko tresnarik indartsua eta, aldi berean, oinarrizko beste giza eskubide batzuk bermatzeko bidea ere errazten du. Inbertsiorik jasangarriena da. Kalitatezko hezkuntzarako eskubidea Giza Eskubideen Aldarrikapenarekin eta nazioarteko beste hainbat arau-tresnarekin lotuta dago, UNESCOk eta Nazio Batuek egindako lanaren ondorioz.

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 26. artikuluaren arabera, lehen hezkuntza doakoa eta unibertsala izatea ezinbestekoa da.

26. ARTIKULUA. GIZA ESKUBIDEEN ALDARRIKAPEN UNIBERTSALA

https://youtu.be/2KEZc4oIB9s

2015. urtean, Garapen Jasangarriari buruzko Nazio Batuen biltzarra egin zen New Yorken. Bertan, **2030erako Garapen Jasangarriko Agenda** ondu zen, 17 helburuz osatua. Horien artean laugarrenak honako hau dio: “hezkuntza inklusiboa, ekitatiboa eta kalitatezkoa bermatzea eta ikasteko aukerak sustatzea bizitza osoan zehar pertsona guztientzat”.

Hezkuntzarako eskubidearen helburuaren barruan, hainbat xede planteatzen dira:

- Haur guztiek lehen eta bigarren hezkuntza buka dezaten lortzea, hezkuntza horrek doakoa, bidezkoa eta kalitatezkoa izan behar duelarik.
- Haurrek eskola aurreko urteetan arreta eta garapenerako zerbitzuak eskuratzeko eta kalitatezko irakaskuntza jasotzeko aukera edukitzea.
- Helduei kalitatezko prestakuntza tekniko, profesional eta goi-mailakoa izateko orduan aukera-berdintasuna ziurtatzea.
- Enplegu bat eskuratzeko edo ekintzaileak izateko gaitasuna duten gazteen eta helduen kopurua handitzea.
- Genero-desberdintasunak ezabatzea eta pertsona zaurgarriak hezkuntzan sar daitezkeela bermatzea.
- Gazte guztiek eta heldu askok irakurtzeko, idazteko eta aritmetikarako gaitasunak dituztela bermatzea.
- Ikasleek garapen jasangarria sustatzeko ezagutzak eskura ditzaten lortzea.
- Haurrei eta desgaitasuna duten pertsonei egokitutako eskolak eraikitzea.
- Garapen bidean dauden herrialdeentzako bekak handitzea.
- Irakasle kualifikatuen eskaintza handitzea.

Jarduera-proposamena

Imajinatu andereñoa zarela. Zein irakaskuntza-metodo erabiliko zenuke zure eskolan? Zer irakats dezakezula uste duzu?

Imajinatu zure eskola propioa, zure istorio propioa. Horretarako, erabili lehen egin duzun eskola eta Andereño, Katalin, Txitxo eta Pioren siluetak. Zure protagonista propioak ere sortu ditzakezu. Aktibatu siluetak linterna batekin, antzerkian ikusi duzun bezala. Istorio zoragarriak sortu eta zure ikaskideekin partekatu ahalko dituzu.

© Txelu Angoitia

Siluetak

Moztu “Andereño” antzezlaneko pertsonaiak zure irudikapen propioak eratzeko. Ez ahaztu makila ere moztu behar dela, ondoren manipulatu ahal izateko.









HELBURUA 4:

Hitzen magia.

Gerra lehertzean, haur askok alde egin behar izan zuten, beren bizilekua aldatzera behartuta.

Hala ere, ikasten eta hezkuntza jasotzen jarraitu zuten, heldu bihurtu arte. Bueltan, Andereñoren irakasgaiak beren bizitzetan zein garrantzitsuak izan ziren gogoratzen dute. Andereñok eskaini zien guztia ezinbestekoa izan zen beren bizitzetan.

Antzezlan honek agerian jarri nahi du **zein garrantzitsuak diren hezkuntza**, hitzak, poesia... Izan ere, guztiak dira **eraldatzeko gaitasuna** duten elementuak.

© Txelu Angoitia

Jarduera-proposamena

CUT-UP KONTAKETA

Idazketan sormena garatzeko teknika ugari daude. Guk erabiliko duguna cut-up deitzen da.

Idazketa-teknika honetan, **paragrafo baten zatiak mozten dira, berriz antolatzeko. Hala, istorio berri bat sortzen da.**

Tristan Tzarak erabili zuen lehenengoz 1920an, bilera surrealista batean: kapela batetik hitzak ausaz atera eta poema bat sortzea proposatu zuen.

Ondoren, erabilera hori azkar zabaldu zen zinemara nahiz musikara. David Bowie, Kurt Cobain, Iggy Pop eta Bob Dylan bezalako artistek teknika hori baliatu zuten beren abestien letrak idazteko.

Jarraian proposatzen dizkizugun esaldi eta ilustrazioekin (Andereño ikuskizunaren kontakizunetik atera ditugu), narrazio bat eraiki ahalko duzu: Baina, gogoratu: ausaz atera beharko dituzu.

1. **Aukeratu 3 esaldi eta 2 ilustrazio.**
2. **Zenbakia jarri, aukeratu dituzun ordenaren arabera.**
3. **Hasi kontakizuna, zenbakiei jarraikiz eta esaldiak ilustrazioekin lotuz.**

Ikusiko duzu nola sortuko dituzun istorio berritzaile eta desberdinak.



© Malen Amenabar

askatasunez ikasi

ikaskideei lagunduz

Eskola eder bat eraiki

Guztiontzako
moduko eskola

ASKATASUNAREN GARRANTZIA

Desberdina izatea, aurrera egiteko

HITZEK BIDAIATU EGITEN DUTE

libre izateko lehen
baldintza saiatzea da

Berdinak eta desberdinak
gara

IRAKURTZEAREN GARRANTZIA

Hezkuntzarako eskubidea

ISTORIO BERRIAK
IRAKURTZEA
GUSTATZEN ZAIT

* Zuk zeuk sortutako edo irakasleek proposatutako esaldiak ere erabil ditzakezu

© Malen Amenabar

Zure kontakizuna

Itsatsi hemen zure esaldi eta argazkiak eta eraiki kontakizun bat horiekin guztiekin. Partekatu zure istorioak gainerako ikaskideekin!

amorebieta etxano UDALA AYUNTAMIENTO

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLITICA LINGÜÍSTICA

S4REA EUSKADIKO ANTZOKI SAREA RED VASCA DE TEATROS

Bizkaia foru aldundia diputación foral

GOBIERNO DE ESPAÑA | MINISTERIO DE EDUCACIÓN, CULTURA Y DEPORTE | inaem

etxepare EUSKAL INSTITUTUA INSTITUTO VASCO BASQUE INSTITUTE

zornotza aretoa

HARROBIA
Bilbao-Otxarkoagako Ekoizpen Eszenikorako Berrikuntza Zentroa
Centro de Innovación en Producción Escénica de Bilbao-Otxarkoaga

Bilbao

topic.

LA CASA DE LOS TÍTERES Abizanda

San Agustin KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALA | CENTRO CULTURAL San Agustin AYTO. de DURANGO

Anita mara Villas teatro marionetas

portalú
<< producciones culturales